

## SU ARTIFIZIALEN 53. NAZIOARTEKO LEHIAKETA

Abuztuak 13tik 20ra  
ALDERDI EDER 22:45

### 13 ALPHA PYRO PIROTECHNIE (París - Frantzia)

Patrick Braulen-ek 2003an Pyrogramme izenarekin sortu zuena 2012an Alpha Pyro izatera pasa zen Ruggieri piroteknia famatua 15 urteko ibilbidetari amaiera emanez . 2005ean gurekin izan ziren eta munduko hainbat lehiaketetan saritua izan dira.

[www.alphapyro.com](http://www.alphapyro.com)

### 14 ASTONDOA PIROTEKNIA (Areatza - Bizkaia)

Pirotekniaren lau belaunaldiaren ondoren gaur egun piroteknia honen buru emakume bat dago Izaskun Astondoa. Bereian hastapenetan, orain 100 urte, abuztuaren 15ean, Alderdi Ederreko parketik su artifizialeko gaztelu eder bat pizteko ardura izan zuten. Donostian askotan izan dira eta aurten ezin zuten hutsik egin.

[www.astondapiroteknia.com](http://www.astondapiroteknia.com)

### 15 NANNA FIREWORKS (Florentzia - Italia)

1922an sortua Paola Nanna buru duen emakumez osaturiko piroteknia da. Nazioarteko hainbat lehiaketetan Italia ordezkatu du, hala nola Vancouveren, Toronton, Quebecen, Tarragonan, Montecarlone eta Donostian. VIP bezala izandaten dute beraien burua: Very Italian People. 2000. urtean gurekin izan ziren.

[www.nannafireworks.it](http://www.nannafireworks.it)

### 16 DISCOMFA PIROTEKNIA (Madril)

1985an sorturiko piroteknia-etxe honek hainbat ekitalditako suak diseinatu eta botatu ditu, hala nola, musika-ekitalditan (Jesuskristo Superstar...), kirol-ekitalditan (Gasteizen jokatu zen 2010eko Saskibaloiko Euro Cup-eko finala edo Espainako itzulia...), kontzertutan (Justin Bieber, Fangoria...) edo telebista programatan (40 principales Sarien Galan 2006tik-2010era). 1998an Donostiako Nazioarteko Su Artifizialen Lehiaketa irabazi zuen eta 1999an Epaimahai Popularraren sari nagusia eskuratu zuen. Halaber, 2010ean Gasteizko Piroteknia ikuskizunaren Nazioarteko VIII. Erakustaldian irabazle suertatu zen.

[www.discomfa.es](http://www.discomfa.es)

### 17 ENIGMA FIREWORKS (Plovdiv - Bulgaria)

22 urtez Bulgarian lanean jardun ondoren beraien produktu piroteknikoaren kalitatea handitzeko helburuarekin, 2013an Kavarnako (Bulgaria) 1. Festibalean hartu zuten parte, 3. saria eta ikusleen saria eskuratu zituzten. 2014an 2. saria lortu zuten Errumaniako Symphony of fire nazioarteko piromusikalean. Eta urte berean Vilniuseko (Lituania) Nazioarteko Su Artifizialen Lehiaketa 3. saria lortu zuten. Aurreneko aldiz dauzkagu gure artean.

[www.enigmabg.com](http://www.enigmabg.com)

### 18 LOPEZ PIROTEKNIA (Santiago de Compostela)

Lopez pirotekniaren lehendabiziko belaunaldia, 1920ko hamarkadara garamatza, Negreiran eta Santiago de Compostelako Rúa de San Pedron zeuzkaten tailerretara. 1992. urtean 4. belaunaldiak enpresaren ardura hartzen du eta enpresariaki eta industrialki prestatzen da legatuarekin jarraitzeko. Azken aurrerapen teknologikoak eta piroteknia egiteko modu berriak batzen ditu tradizio eta modernitatearen arteko oreka egokiena lortzeko.

[www.pirotecnialopez.com](http://www.pirotecnialopez.com)

### 19 LUSO PIROTEKNIA TALDEA (Lisboa - Portugal)

Portugalek Lisboan egindako Expo 98 antolatzeke bat egin zuten 4 konpainien elkarlanean oinarrituta, talde hau duela 15 urte sortu zen. Gau egun Portugal osoan banatuta dauden 6 konpainiekin osatzen dute. Europa, Afrika, Asia eta Ameriketako 20 herrialde baino gehiagotan izan dira Munduan su artifizialen ur jausi handiena egin zuten Nieuwporten (Belgika) 2014an. Gure lehiaketa hainbat sari eskuratu ditu: 1998ko Zilarrezko maskorra eta Epaimahai Popularraren 3. Saria eskuratu zituzten. 2001en eta 2013an berriz Brontzezko Maskorra irabazi zuten.

[www.lusopirotecnia.com](http://www.lusopirotecnia.com)

### IKUSKIZUN PIROMUSIKALA

Diseinugilea: Ricardo Caballer Cardo  
Musika zuzenean: HONDARRIBIKO HIRIA MUSIKA BANDA Juan José Ocón-en gidaritzapean

### 20 RICASA (Valentzia)

Enpresak gure lehiaketa irabazi zuen: 1989, 1993, 2001, 2002 eta 2006an. 2007 eta 2013an Zilarrezko Maskorra eta Brontzezko Maskorra 1997an. Epaimahai Popularraren Saria 2002, 2003, 2006, 2007 eta 2013an. Euskaltel Epaimahai Gaztea 2006, 2007 eta 2013an. RICASAk erronka berria hartzen du 2016ko Aste Nagusiari amaiera eman-go dion piromusikalarekin. Piezen erdiak zuzenean joko ditu Hondarribiko Hiria Musika Bandak, Juan Jose Oconen gidaritzapean.

[www.ricardocaballer.com](http://www.ricardocaballer.com)

## DONOSTIA 2016KO EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA

Donostiako Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketak “Europako kultur hiriak” gaia aukeratu du aurtengo programa osatzeko.

Parte hartuko duten piroteknia-etxe guztiak bere garaian Europako kultur hiri izendatu zituzten hirietatik datoz. Astondoa pirotekniaren egoitza Bizkaian badago ere, gure hirian badu ordezkaritza bat eta bertaraino iristen da bere eragin-eremua.

1985eko ekainaren 5ean, eta garai hartan Greziako kultura ministroa zen Melina Mercouri-k bultzatuta, Europako Erkidegoko 10 estatu kideek, urtero, Europako hiri bat “Europako Kultur Hiriburu” gisa aukeratzea erabaki zuten. Atenas izan zen aukeratutako aurrenekoa. 1999an tituluari izena aldatu eta “Europako Kultur Hiriburu” jarri zioten

Normalean urtero bi hiri izendatzen dituzte aldi berean (Donostiak hiriburutzua Poloniako Wrocław hiriarekin partekatzen du), zenbait urtetan salbuespenak egin badira ere. Adibidez 2000. urtean, Santiago de Compostelarekin batera, beste 8 hiriburu izendatu zituzten.

Aukeratutako hiriburuari, beti, aberastasun soziala, kulturala eta ekonomikoa ekartzen dizkio, eta urtea amaituta, betirako izango den ondarea geratzen da bertan.

- **Abuztuak 13, larunbata:** Parisko Alpha Pyro Pirotechnie etxea. Paris 1989ko Europako Kultur Hiriburu izan zen Iraultza Frantsesaren berrehugarren urteurrenarekin bat etorritz.
- **Abuztuak 14, igandea:** Astondoa Piroteknia. Donostia Hiriburutzaren urtea ospatzen ari da leitmotib gisa “elkarrekin bizitzeko kultura” duen kultur programa zabal batekin
- **Abuztuak 15, astelehena:** Florentziako Nanna Fireworks. Atenasen hiriburutzaren lekukoa jaso zuen hiri hau 1986an hautatu zuten, Nazio Batuen Batzar Nagusiak “Bakearen Nazioarteko Urtea” izendatzearekin bat eginez.
- **Abuztuak 16, asteartea:** Madrilgo Pirotecnia Discomfa etxea. Madril izan zen hiriburutzaren titulua jaso zuen Estatuko lehen hiria 1992an. “Madrid, Madrid, Madrid” lemapean, munduko kulturalan Madril historikoki zer izan den baloratzen saiatu ziren. Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalak 200 pezetako zilarrezko oroitzapenezko txanpona egin zuen.
- **Abuztuak 17, asteazkena:** Plovdiv-eko (Bulgaria) Enigma Fireworks etxea. Hiri hau, Italiako Matera-rekin batera, “2019ko Europako Kultur Hiriburu” izendatu dute. Bertan 1999an jada antolatu zuten “Europako Kultur Hilabetea”. Batez ere Europar Batasunetik kanpo dauden herrialdeetako hirientzako egindako antzeko ekitaldia da hau.
- **Abuztuak 18, osteguna:** Santiago de Compostelako Pirotecnia López etxea. Milurtekoaren aldatketaren data sinbolikoa aprobetxatuz, 2000. urtean bederatzir hiriburu izendatzea erabaki zuten eta, Santiago de Compostelarekin batera, honako hauek aukeratu zituzten: Aviñon, Bergen, Bolonia, Brusela, Cracovia, Helsinki, Praga eta Reikiavik.
- **Abuztuak 19, ostirala:** 1994an hiriburutzaren urtea ospatu zuen Lisboako Grupo Luso Pirotecnia etxea. Hiriburutzaren amaierarekin bat etorritz, “Europako Kultur Hiriak eta Europako Kultur Hilabeteak” izeneko txostena aurkeztu zuten. Azterketa horren arabera, “Europar Batasuneko hiri jakin batzuk aukeratzeko Ministroen Kontseiluaren erabakiak erantzun kementsua eta irudimentsua eragin du, eta hiriek kultur erakunde gisa duten papera indartu du”.



## SEGURTASUN NEURRIAK

### SEGURTASUNA BERMATU AHAL IZATEKO, BETE ITZAZU HURRENGO ARUAUAK:

- Material piroteknikoa kokatzen den aldea itxita egongo da aste osoan. Bertan sartzea debekatu dago baimenduta ez dagoen edonorentzat. Errespetatu segurtasun arduradunak emandako irizpideak eta ez gaudituz hesiekin edo zintarekin itxita dagoen eremua.
- Gauero, 22:15etik aurrera, jendeari irtenarazi egingo zaio jaurtitzeko inguruneetatik, eta bertara sartzea debekatu egongo da. Eremu horretako bizilagunek gaueko 22:30ak baino lehenago etxeratu beharko dute.
- Aparkaleuetako erabiltzaileek 22:00ak baino lehenago utzi beharko dituzte ibilgailuak, eta ezingo dituzte ateratu 23:30ak baino lehenago.
- Inguruan dauden etxebizitza eta lokalen leiho eta balkoiak itxia eta elementu errekorrak kentzea (arropa, toloak, hamakak...) gomendatzen da.
- Su artifizialak jaurtitzean, maiz erortzen dira errauts hondakinak. Begietan sartuz gero, ur askorekin garbitzea komeni da, eta ez igurtzea.
- Jakinarazten dugu su artifizialen jaurtiketa ezingo dela ikusi jaurtiketa-zonaren inguruko eraikinetako terraza, balkoi edo leihoetatik.
- Lagun gaitzazu eta aparka ezazu zure ibilgailua segurtasun eremutik kanpo, elementuren bat erori dakioko eta.
- Gauero, ikuskizuna amaitutakoan, udal zerbitzuek itxita inguruneak miatuko dituzte, hondakin piroteknikoaren bila, 10 minutuz Jendea sartu ondoren, material susmagarriak aurkitzen baduzu, ez ukitu, ez bultzatu hankarekin, eztanda egin dezake eta. Ez eskutan erabili, aldeni eta jendeari arriskuaren berri eman. Segituan bilatutakoaren berri eman gertueneko segurtasun arduraduneri edo agintariari.

- Adin txikiko arduraduna bazara: haurra galduko balitzazu jakinarazi iezazazu udaltzain bati. Behin eta berriro debekatu iezazazu haurrari material piroteknikorik ukitzen, kalte ondorio larriak sor ditzake eta.

- Ikuskizuna bitartean, gaixotu (lipotimikiak, zorbioak eta abar) edo zauriren bat izan ezker, segurtasun arduradun batengana edo inguruan aurkitzen diren osasun langileengana hurbildu zaitez.

Itsasoan: suak ikusteko badiara iristen diren ontzi patroiek dagokion agintarien instrukzioak bete beharko dituzte zehatz-mehatz.



#### KONTROL PUNTUAK

#### BALIABIDEAK

- Oinarritzako anbulantzia
- Anbulantzia medikalizatuta
- Suhiltzaileak
- Baldeadora
- PMA
- Salbamenduko ontzia

#### EVAKUAZIO ETA SARTZEKO BIDEA

- Sarrera
- Irteera
- Jaurtiketarako eremua
- Jendearentzako segurtasun eremua

